Manifiesta que el grupo Popular se ha visto obligado a presentar la Moción, ya que tras haber intentado hubo conversaciones con los grupos y el Alcalde para ver como se articulaba el rechazo de la Corporación, pero visto que no ha cristalizado en nada presentaron la Moción, ya que entiende que debe haber un rechazo formal en cada uno de estos actos. Finaliza manifestando la solidaridad con los socialistas de Derio y los vecinos afectados.

Sometida la Moción de referencia a votación es aprobada por la totalidad de miembros de la Corporación.

En consecuencia, se acordó por

batez:

“Joan den ostegunean, urtarrilaren 31n, Andra Mariko zonan, 30 kilo lehegailu zituen ontzi bat aurkitu zutela aintzat hartuta, Udal Talde Popularrak eskabide hauxe egin nahi du:

Kondenarik eta gaitzespenik erabatekoena, pertsonen ondasunen, eskubideen edo bizitzaren aurkako atentatua egin nahi zutenentzat, horien helburua beldurra eta hondamena eragitea baita.

Udaltzaingoari, Ertzaintzari eta Estatuko Seguritasun Indarrei babesa ematea, jarduera terroristaren aurkako lanean.

ETA talde terroristari armak berehala uzteko eskatzea”.

Mercedes Angulo bilkuratik irten da.

**34.- UDAL TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA, UDAL INFORMAZIOKO GETXO BERRI ARGITALPENARI ETA GETXO IRRATIA UDAL IRRATIARI BARNE ARAUKETARAKO TRESNAK EMATEARI BURUZKOA.**

Luis Almansa jaunak Mozioa irakurri du.

Gamero jaunak hitza hartu du, PPren izenean; bere ustez, Mozioa garrantzi handikoa da, udalerrietako

unanimidad:

“Ante el descubrimiento el pasado jueves día 31 de enero en la zona de Andra Mari de un recipiente con 30 kilos de explosivos, el Grupo Municipal Popular solicita,

Su condena y rechazo más rotundo ante quienes, una vez más, pretendían atentar contra los bienes, derechos o la propia vida de las personas, sembrando de esta forma el terror y la destrucción.

Su apoyo a la Policía Municipal, la Ertzaintza y las Fuerzas de Seguridad del Estado en su actuación contra la actividad terrorista.

Exigir el cese inmediato, sin condición alguna a la banda terrorista ETA”.

Sale de la sesión Mercedes Angulo.

**34º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A DOTAR DE INSTRUMENTOS DE REGULACIÓN INTERNA A LA PUBLICACIÓN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL GETXO BERRI Y A LA EMISORA MUNICIPAL GETXO IRRATIA.**

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Interviene el Sr. Gamero en nombre del PP, y califica de muy importante la Moción, ya que los medios de

komunikabideek urratu egiten baitute 29/2005 Legea, oposizioko taldeei buruzkoa. Esan du errespetatu egiten duela tokiko komunikabideetako langileen sormena, baina aditzera eman du 2008an (Getxoberriko zazpi zenbaki editatu dira) ordezkari politikoen 21 argazki agertzen direla, eta guztiak direla EAJko ordezkariak, eta beste talde batzuetako bi politikari baino ez direla agertzen. Beste alde batetik, 2007ko argazkiei buruz egindako ikerketaren arabera, argazki guztien %98an EAJko ordezkariak baino ez dira agertzen. Informazio idatziari dagokionez, legegintzaldi honetan Osoko Bilkuran 53 mozio onetsi diren arren, horietariko 3ri buruzko informazioa baino ez da eman Getxoberri; hain zuzen ere, EAJren babesa zuten 3 mozioren berri eman da. Adierazitako datuek agerian jartzen dutenez, Getxoberriren jarduketak urratu egiten du indarreko legalitatea, eta, gainera, udalerriko albiste guztiei buruzko informazioa emateko printzipioaren aurka egiten du.

Josu Loroñok, gobernu taldearen izenean, gogora ekarri du Audientzia Nazionalak kondenaturiko gobernu bakarra PPren gobernu izan dela, albistegi batean emandako informazioaren ondorioz. Halaber, galdetu du ea PPren edo PSOEn gobernu duen zein udaletan erantzuten zaien Mozioan planteatzen diren eskariei. Gogora ekarri du Getxoko Udalak Tokiko Komunikabideak arautzen dituen Araudia duela, eta, bere ustez, idazketa-batzorde batean komunikazioaren munduko profesionalak ez direnek parte hartzeak ez duela zentzurik.

Almansa jaunak dioenez, gai honek

comunicación municipales incumplen la Ley 29/2005 respecto a los grupos de la oposición. Manifiesta su respeto a la creatividad de los trabajadores de los medios de comunicación locales, pero indica que el año 2008 en el que se han editado siete números del Getxoberri, se recogen 21 fotos de representantes políticos, y en todas ellas aparecen representantes del PNV, y solamente en dos aparecen políticos de otros grupos. Que ese mismo estudio realizado respecto a las fotos del 2007, demuestra que en el 98% de las fotos solamente aparecen representantes del PNV. Respecto a la información escrita indica que pese a que se han aprobado 53 mociones en el Pleno en lo que va de legislatura, únicamente sobre 3 de ellas se ha informado en Getxoberri, concretamente 3 que contaban con el apoyo del PNV. Los datos manifestados indican que Getxoberri, en su actuación, atenta contra la legalidad vigente y contra su propio principio de informar de todas las noticias municipales.

Josu Loroño en nombre del equipo de Gobierno recuerda que el Gobierno del PP ha sido el único gobierno que ha sido condenado por un tribunal como la Audiencia Nacional por una información dada en un telediario. Así mismo pregunta a ver en qué Ayuntamiento gobernado por el PP o PSOE se atienden las demandas que en este momento plantea la Moción. Recuerda que el Ayuntamiento de Getxo tiene un Reglamento Regulator de los Medios de Comunicación Local y que estima que en un consejo de redacción no tiene sentido que participe gente que no sean profesionales de la comunicación.

El Sr. Almansa manifiesta que el tema



garrantzia politikoa eta legala dauka; izan ere, alkateak eta gobernu taldeak ezin dute irratia bat eta telebista bat eduki, horiek ez baita sartzen euren eskumenen esparruaren barruan. Alkatetzari, bere eskumenak aplikatuz, auzotarrekiko komunikazioari dagokionez, Legeak ediktuak eta bandoak erabiltzea ezartzen dio. Getxon, hala eta guztiz ere, tokiko komunikabideak Alkatetzaren edo Gobernu Batzordearen aginduetara daude, edo funtzionarioen aginduetara, eta horiek guztiek ez dute eskumenik horretan, Getxoberri eta Getxo Irratia zuzeneko kudeaketako zerbitzu publikoak direlako eta, beraz, horien arauketa Osoko Bilkuraren eskumenekoa delako. Hori gertatzen eta hutsune hori aprobetxatzen den bitartean, baliabide horiek euren onurarako kudeatzen ari dira, eta oposizioko taldeen kalterako.

Iñaki Gamero erantzuna eman dio Loroño jaunari, esanez ez duela erantzunik eman berak aurkezturiko datuei dagokionez; halaber, esan dio lehen gobernu taldeak titularretan oinarrituz jardutea leporatu diola talde Popularrari, baina Getxoberri ere jarduteko modu hori ageri-agerian dagoela, bertako irudi guztiak EAJrenak baitira, 1.033 zenbakian izan ezik, bertan talde politiko guztiak ageri baitira.

Josu Loroñok erantzun dio komunikabideak udal-araudiak arautzen dituela, eta, inork hori aldatu nahi izanez gero, zentzuzkoena EUDELen bidez egitea dela, udalerriz guztietan aplikazioa berbera izateko. Komunikabideak erabiltzeari dagokionez, Barakaldoko udal-aldizkariaren editorial bat irakurri du; bertan, alkateak hauteskunde batzuetan

tiene trascendencia política y legal, ya que ni el Alcalde ni la Junta de Gobierno pueden disponer de una emisora y de un periódico porque no entra dentro del marco de sus competencias. La Alcaldía en aplicación de sus competencias, en la comunicación con los vecinos la ley le plantea la utilización de edictos y bandos. En Getxo sin embargo los medios de comunicación locales se rigen por instrucciones de la Alcaldía o Junta de Gobierno, o de funcionarios, y todos ellos carentes de competencias ya que Getxoberri y Getxo Irratia son servicios públicos de gestión directa y por tanto su regulación es competencia del Pleno. En tanto esta no se da y aprovechando este vacío, el equipo de Gobierno lo que está haciendo es gestionar esos medios en su favor y en detrimento de los grupos de la oposición.

Iñaki Gamero replica al Sr. Loroño manifestándole que no ha respondido nada de los datos que él ha aportado, y que si antes el equipo de Gobierno acusaba al grupo Popular de funcionar a golpe de titular, esta forma de funcionar es evidente en el Getxoberri donde todas las imágenes son del PNV excepto un número, el 1.033 que califica de incunable, ya que en el mismo aparecen todos los grupos políticos.

Josu Loroño replica que los medios de comunicación están regulados por un Reglamento municipal y que si alguien quiere modificarlo lo lógico es que sea a través de EUDEL para que sea de aplicación uniforme en los diferentes ayuntamientos. En relación a la utilización de los medios de comunicación, lee parte de un editorial de una revista municipal de Barakaldo

Euskadiko Alderdi Sozialistari emandako botoa eskertzen du. Berririo PPren eta PSEren gobernuaren udaketako udal-komunikabideetan ez dela oposizioa agertzen, eta Osoko Bilkurak ez direla oso-osorik agertzen; Getxon, aldiz, egin egiten da hori.

Almansa jaunak berririo esan du gobernu taldeak ez diola erantzunik ematen Mozioan planteaturikoari; organo eskudunak, Osoko Bilkurak, arlo horretan dagoen hutsunea arautzeko eskabidea egin du. Gogora ekarri du lehen Komunikabideak Kontrolatzeko Batzordea zegoela, baina legegintzaldi honetan ezabatu egin dela. Azkenik, esan du Mozioaren helburua Osoko Bilkuraren eskumenak babestea dela.

Urkiza jaunak dioenez, berak ez daki beste komunikabideen funtzionamendua zein den, baina horietariko gehienek partaidetza-batzordea dute, Getxok lehen zuen bezala, eta aurreko legegintzaldian hori ezabatu egin zela, eginkizun horiek Informazio Batzordearen esku utzita. Esan du Mozioan abstenitu egingo dela; izan ere, egotez ez dago ados Mozioaren eduki osoarekin, baina talde guztien partaidetza arautzearen eta erraztearen aldekoa da.

Gamero jaunak esan du bera Getxoko zinegotzia baino ez dela, eta eman dituen datu guztiak Getxoko komunikabideei buruzkoak direla; gobernu taldeak, berriz, ez dio erantzunik eman bertan planteaturiko ezein galderari.

Loroño jaunak erantzuna eman dio Gamero jaunari, esanez datu horiek

en la que el Alcalde agradece el voto al Partido Socialista de Euskadi en unas elecciones. Insiste en que los medios municipales de ayuntamientos gobernados por el PP o por el PSE no aparece la oposición ni se retransmiten íntegramente los Plenos, cuestión que si se realiza en el Ayuntamiento de Getxo.

El Sr. Almansa insiste en que el equipo de Gobierno no responde a lo que se plantea en la Moción, que exige que se reglamente el vacío existente por el órgano competente que es el Pleno. Recuerda que existía una Comisión de Control de los Medios de Comunicación que en esta legislatura se ha suprimido. Finaliza manifestando que el objeto de la Moción es defender las competencias plenarias.

El Sr. Urkiza manifiesta que no conoce como funcionan otros medios de comunicación, pero que la mayoría de ellos tiene un Consejo participativo que era el que existía en Getxo, y que en la legislatura anterior se decidió suprimir adscribiendo dichas funciones a la Comisión Informativa correspondiente. Manifiesta que se va a abstener en la Moción, ya que si bien no está de acuerdo con el contenido total de la Moción, si es partidario de regular y facilitar la participación de los diferentes grupos.

El Sr. Gamero indica que él únicamente es concejal de Getxo, y que los datos que ha dado se refieren a los medios de comunicación de Getxo, sin que por parte del equipo de Gobierno se haya respondido a ninguna de las cuestiones planteadas.

El Sr. Loroño le replica al Sr. Gamero indicando que esos datos son

zalantzazkoak direla, eta Almansa jaunari esan dio Getxoberriren eta Getxo Irratiaren informazioa arautzen duen Araudia dagoela; hori aldatu nahi izanez gero, zentzuzkoena EUDELen bidez egitea izango litzateke, udalerrri guztien arteko berdintasuna egoteko. Azkenik, berretsi egin du PPren eta PSOEn gobernua duten udalerrietan ez dela betetzen mozioan eskatzen dena; Getxoko Udaleko komunikabideetako edukiei buruzko ikerketa egiteko prest dago, horiek PPren edo PSOEn gobernua duten udalekin konparatzeko. Gogora ekarri du tokiko komunikabideek Udalaren jarduketari buruzko informazioa eman behar izaten dutela, eta jarduketa horiek, funtsean, gobernu taldearen jarduketak dira; hala eta guztiz ere, Mozioari dagokionez, abstenitu egingo dira, euren ustez, tokiko komunikabideen inguruko hausnarketa egitea ere ezinbesteko delako.

Mozioa bozkatu eta horren emaitza ondoren adierazitakoa izan da: aldeko 13 boto (PP eta PSE-EE) eta 11 abstentzio (EAJ eta EB/B).

Horrenbestez, honako erabaki hauxe hartu zen gehiengoz:

“Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak, ia asteroko aldizkakotasunarekin, ‘Getxoberri’ izeneko aldizkaria argitaratzen du; bertan, udal- eta toki-bizitzari buruzko albisteak jasotzen dira, eta, horien artean, aipagarriak dira Alkatetzak eta gobernu taldeak harturiko erabakiak nahiz egindako jarduketak. Era berean, Udalak ‘Getxo Irratia’ izeneko udal-irratia dauka”.

cuestionables y al Sr. Almansa le indica que existe un Reglamento que regula la información de Getxoberri y de Getxo Irratia y que si se quiere cambiar plantea que lo lógico sería que se planteara a través de EUDEL para garantizar una igualdad entre los diferentes municipios. Finaliza insistiendo que donde gobiernan el PP y el PSOE no cumplen lo que solicitan en la moción, y se muestra favorable a realizar un estudio acerca de los contenidos de los medios de comunicación del Ayuntamiento de Getxo con los de cualquier otro municipio gobernado por el PP o por el PSOE. Recuerda que los medios de comunicación locales deben de informar de la actuación del Ayuntamiento, que básicamente son las actuaciones del equipo de Gobierno, pero que se van a abstener respecto a la Moción porque entiende también que es necesaria una reflexión sobre los medios de comunicación locales.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PP y PSE-EE, y 11 abstenciones del PNV y EB/B.

En consecuencia, por mayoría, se acordó:

“El Ayuntamiento de Getxo edita por el Área de Comunicación y con una prioridad casi semanal una publicación de información municipal denominada “Getxoberri” que recoge noticias e informaciones relativas a la vida municipal y local, entre las que se encuentran principalmente acuerdos y actuaciones de la Alcaldía y del grupo de Gobierno. E igualmente el Ayuntamiento cuenta con una emisora municipal de radio, “Getxo Irratia”.

Idatzizko argitalpen hori eta udaleko irratia, izan ere, zuzeneko kudeaketa duten udal-informazioko zerbitzu publikoak dira, eta, gure ustez, hori arautzeko tresna eta arau egokiak behar dira, gaur egun ez baitago halakorik; hain zuzen ere, beharrezkoa da zerbitzu publikoa eta kalitatea bermatzea, udalerriko biztanle guztiei.

Erakundeen Publizitateari eta Komunikazioari buruzko abenduaren 29ko Legea erreferentziaz hartuta, informazio publikorako bi tresna horien erabilgarritasunari eta titulartasunari dagokionez, debekaturik dago gobernu taldearen lana goraiatzea, udalean lan egiten duten gainerako talde guztien kaltetan.

Halakorik ez gertatzeko eta aniztasuna bermatu ahal izateko, gure ustez ezinbestekoa da udal-informazioko aldizkariaren eta udal-irratia arauketa egokia ezartzea, barruko araudia aintzat hartuta, indarreko legezko araudian ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, Udal Talde Sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkeztu nahi du Osoko Bilkuran:

1.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bilkuran, gobernu taldeari eskabidea egitea erabaki du, hiru hilabeteko epean Barne Araudiko proposamen bat aurkezteko eta, bertan, honako hau arautzeko: idatzizko udal-argitalpenaren eta Getxo Irratia udal-irratia espazioak, edukiak nahiz aldizkakotasuna”.

Dicha publicación municipal escrita y la emisora municipal de radio son un servicio público de información municipal de gestión directa, que entendemos debe estar sujeto a una normas o instrumentos de regulación, de las que actualmente carecen, que garanticen un servicio público plural y de calidad.

Si tomamos con referencia la Ley 29/2005, de 29 de diciembre, de Publicidad y Comunicación Institucional, la utilidad y titularidad pública de estos dos instrumentos de información pública implica que ambos medios tienen prohibido ensalzar la labor del grupo de Gobierno en detrimento del resto de los demás grupos municipales.

Para evitarlo y garantizar su pluralidad creemos que es necesario establecer una regulación del periódico-boletín de información municipal y de la emisora de radio municipal vía reglamento interno, conforme a lo establecido en la normativa legal vigente.

En consecuencia, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de acuerdo

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo en su reunión de fecha 29 de febrero de 2008, acuerda instar al equipo de Gobierno a que en el plazo de tres meses presente una propuesta de Reglamento Interno que regule espacios, contenidos, consejo de redacción y periodicidad de la publicación municipal escrita, Getxoberri, y de la emisora municipal de radio, Getxo Irratia.”

**35.- UDAL TALDE SOZIALISTAK  
AURKEZTUTAKO MOZIOA,  
ERROMOKO ERREKAGANE  
PASEALEKUKO ZORUA BEREHALA  
KONPONTZEARI BURUZ.**

Almansa jaunak Mozioaren edukia irakurri du.

Toca jaunak dioenez, pasealekuaren egoera negargarria da, eta, gainera, esan du harriturik dagoela, eguneko prentsan jakin dutelako proiektua egiten ari dela; horrenbestez, azken Gobernu Batzaren aktak jasotzearen zain daude, egoera baloratu ahal izateko.

Arregi jaunak adierazitakoaren arabera, orain dela lau hilabete, talde Sozialistak antzeko gauza bat planteatu zuen, eta adierazi zen lanean ari ginela; jardueri dagokienez, egindako proiektua erakutsi du; proiektu horrek 530.000 euroko aurrekontua dauka, eta obrak betearazteko epea, berriz, hiru hilabetekoa da; halaber, proiektuaren edukiaren gaineko xehetasun teknikoak ere eman ditu.

Almansa jaunak dioenez, proiektua orain dela hilabete batzuk idatzi zen, eta aurreko mozioaren helburua horixe izan da; hala ere, mozio horren bidez, agerian jarri nahi da gobernu taldearen arduragabekeria, parkeak eta zona berdeak mantentzeko lanean; horren adibidetzat, Errekaganeko zurezko zoladura jarri du, hori orain dela bi urte apurtu zelako eta erabiltzaileak arriskuan jartzen dituelako.

Arregi jaunak gogora ekarri dio Getxok

**35º.- MOCIÓN DEL GRUPO  
MUNICIPAL SOCIALISTA  
RELATIVA A LA REPARACIÓN  
URGENTE DEL FIRME EN EL  
PASEO ERREKAGANE DE ROMO.**

El Sr. Almansa da lectura a la Moción de referencia.

El Sr. Toca indica que el estado del paseo es deplorable, y manifiesta su sorpresa ya que en la prensa del día se han enterado que está realizado un proyecto, y por tanto están a la espera de recibir las Actas de la última Junta de Gobierno para valorar la situación.

El Sr. Arregi indica que hace cuatro meses se planteó por el grupo Socialista una cuestión similar, y se indicó que se estaba trabajando y como consecuencia de las actividades realizadas enseña el proyecto que ya está realizado, que tiene un presupuesto de 530.000 euros y un periodo de ejecución de obra de tres meses, dando también detalles técnicos del contenido del proyecto.

El Sr. Almansa indica que el proyecto lleva algún mes redactado, y es lo que buscaba la moción anterior, pero que esta moción lo que quiere poner de manifiesto es la negligencia del equipo de Gobierno en las labores de mantenimiento de parques y zonas verdes, poniendo como ejemplo el pavimento de madera de Errekagane, que lleva más de dos años roto, generando un peligro para los usuarios.

El Sr. Arregui le recuerda que Getxo

izen ona duela parkeen nahiz lorategien eta zerbitzu-zonen mantenamendu maila altuagatik; gainera, gogora ekarri dio Errekaganen ezin dela eskuhartzerik egin proiekturik egon ezean, are gutxiago horrek Gobela ibaiaren bidean eragina duenean; izan ere, halako jardueretarako aldi jakina behar da, eta konpondu beharreko egitura zaila da.

Toca jaunak esan du Getxo eredugarria izan zela parkeen eta lorategien mantenamenduan, baina orain ez dela eredugarria, gaur egun eredugarria Bilbo dela.

Almansa jaunak adierazitakoaren arabera, Mozioak mantenamendua planteatzen du, eta berriro dio zurezko taulak narriaturik daudela eta arriskutsuak direla (lesioak edo ubidean erortzea), eta, beraz, berehalako neurriak hartu behar direla.

Alkatearen ustez, talde Sozialistak kontzientzia txarra dauka Erromo auzoarekin, batez ere Gobelaren ubideari dagokionez, eta kontzientzia txar hori, izan ere, Gobela ibaiaren ubidea irekitzeko proiektuaren ondoriozkoa da; horrexegatik ari da Erromokoen antzeko jarduerak behin eta berriro planteatzen; bere iritziz, hori ondo dago, gobernu taldea lanean ari baita Erromoko bizi-kalitatean hobekuntza garrantzitsuak egiteko, apurka-apurka-

Mozioa bozkatu ondoren, Korporazioko kide guztiek onartu egin dute.

Hortaz, hauxe erabaki da aho batez:

“2007ko azaroko Osoko Bilkuran, Udal

está reconocido por el alto nivel de mantenimiento de sus parques y jardines y zonas de servicios y le recuerda que en Errekagane no se puede intervenir sin proyecto, y menos cuando se afecta al cauce del río Gobela, y estas situaciones requieren un tiempo, además de que la estructura a reponer es complicada.

El Sr. Toca indica que Getxo fue un orgullo en el mantenimiento de parques y jardines, pero que actualmente no lo es, y hoy en día el municipio que es un orgullo es el de Bilbao.

El Sr. Almansa indica que la Moción plantea una cuestión de mantenimiento, e insiste en que las tablas de madera que están deterioradas suponen un peligro de lesión y de caída al cauce que ha de evitarse de manera inmediata.

El Sr. Alcalde manifiesta que cree que el grupo Socialista tiene una mala conciencia con el barrio de Romo, sobre todo en todo aquello referente al cauce del Gobela, mala conciencia que deriva de su proyecto de abrir el cauce del río Gobela, y por ello están continuamente planteando actuaciones en Romo, cuestión que le parece bien ya que el equipo de Gobierno está trabajando y va a seguir trabajando por mejoras importantes en la calidad de vida de Romo, de una manera paulatina.

Sometida la Moción de referencia a votación, es aprobada por la totalidad de miembros de la Corporación.

En consecuencia, se acordó por unanimidad:

“En la sesión plenaria de noviembre de

Talde Sozialistak eskatuta, aho batez onetsi zen gobernu taldeari hauxe eskatzen zion proposamena: oraingo zurezko zoladura berrizatzeko eta oraingo segurtasun-baranda ordezteko bidezko jarduketak egitea, Gobela ibaiaren ubide ondoko oinezkoen ibilbideetan eta Errekagane parkean, Erromon.

Era berean, Errekagana pasealekuko zoladuraren narriadura-egoera oso txarra aintzat hartuta, gobernu-taldeak pasealeku berria egitea erabaki zuen, eta oraingo aulkien ordeztu beste aulki batzuk jartzea, oraingoak guztiz deserosoak baitira adineko pertsonentzat.

Dagoeneko lau hilabete igaro dira erabaki horiek hartu zirenetik, eta oraindik ez da horren inguruko neurririk hartu; Errekagane pasealekuko zoladuraren egoera, berriz, negargarria da, eta zoruak irregulartasun asko ditu; horrela, bertatik ibiltzea zaila da eta, gainera, guztiz arriskutsua ere bada, estropezu egiteko eta erortzeko arriskua baitago, egunero pasealekua erabiltzen duten pertsonentzat (adineko pertsonak, gurasoekin doazen haurrak, etab.).

Beraz, azaldutakoa aintzat hartuta, eta hiri-inguruen eta eremu publikoen irisgarritasun-baldintzen arau teknikoak ezarri dituen 68/2000 Dekretua betetzeko, Udal Talde Sozialistak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dio Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Erromoko Errekagane pasealekuko zoruaren narriadura-egoera ikusita, eta kontuan hartuta horrek erabiltzaileei

2007 y a iniciativa del Grupo Municipal Socialista se aprobó por unanimidad una proposición por la que se instaba al equipo de Gobierno a que realizara las actuaciones oportunas que condujeran a la renovación del actual pavimento de madera y de la sustitución de la actual barandilla de seguridad en los itinerarios peatonales junto al cauce del río Gobela y en el parque Errekagane, en Romo.

Igualmente se acordó, dado el estado de deterioro que se encuentra el pavimento del paseo Errekagane, que por el equipo de Gobierno ejecutara uno nuevo, así como la sustitución de los actuales bancos, que resultan incómodos para las personas mayores.

Han transcurrido ya cuatro meses desde que se adoptó dichos acuerdos y todavía no se ha adoptado ninguna medida al respecto, mientras tanto el pavimento del paseo Errekagane se encuentra tan descarnado y con tantas irregularidades en el firme que resulta no solo dificultoso pasear por él, sino supone realmente un verdadero peligro por riesgo de tropiezos y caídas para las muchas personas que a diario lo utilizan: personas mayores, niños y niñas con su padres, madres, etc.

En consecuencia con lo expuesto y en cumplimiento del Decreto 68/2000, por el que se regula la normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad en los entornos urbanos y espacios públicos, el Grupo Municipal Socialista, presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de, acuerdo:

1. Que, dado el estado de deterioro del firme en el paseo Errekagane, de Romo, y el peligro que ello supone para las

sortzen dien arriskua, gobernu taldeak zoru hori berehala eta premiaz konpontzea.

personas que lo utilizan, de manera urgente se proceda por el equipo de Gobierno a la reparación de dicho firme.”

**36.- UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDALAK UDALERRIRAKO BANDERA BAT HARTZEARI BURUZ.**

**36º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A QUE EL AYUNTAMIENTO ADOPTE UNA BANDERA PARA EL MUNICIPIO.**

Almansa jaunak goiburukoan aipaturiko mozio hori irakurri du.

El Sr. Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Koldo Iturbek adierazitakoaren arabera, gobernu taldeak uste du ez dela banderarik behar; berak gogorarazitakoaren arabera, gai hori lehenagoko udalbatzarretan ere aztertu da, eta uste du auzotarrek ez dutela bandera baten beharrik ikusten, eta horrek ez diela ekarpenik egingo hiritarrei.

Koldo Iturbe manifiesta que el equipo de Gobierno no ve necesidad de una bandera; recuerda que es un tema que se ha tratado en corporaciones anteriores y cree que la necesidad de una bandera no es algo solicitado por los vecinos ni que vaya a aportar nada a la ciudadanía.

Urkiza jaunak dioenez, banderak, sarritan, jendea batzeko elementuak baino gehiago, gatazkarako elementuak izaten dira; hala ere, Mozioaren alde egingo dute, Getxoko auzo guztietako auzotarrak biltzen dituen bandera lortu ahal izateko.

El Sr. Urkiza manifiesta que las banderas muchas veces más que elementos de unión se han convertido en elementos de confrontación, pero que pese a ello van a apoyar la Moción para abrir un camino en el intento de lograr una bandera que una a todos los vecinos de los diferentes barrios de Getxo.

Arrue andreak adierazi du bere taldeak, Alderdi Popularrak, Mozioaren alde egingo duela; izan ere, komenigarria da auzotar guztiak denak identifikatzen dituen bandera baten inguruan biltzea. Berak adierazitakoaren arabera, 2001ean udalak ikerketa bat agindu zion vexilologo bati, eta ikerketa hori egin

La Sra. Arrue manifiesta que el grupo Popular apoyará la Moción, ya que es conveniente aunar a todos los vecinos bajo una bandera que les identifique a todos. Indica que el año 2001 el Ayuntamiento encargó un estudio a un vexilólogo y que dicho estudio se realizó, y en sus conclusiones se indicaba a que Getxo no había tenido



egin zen; ondorioetan adierazten zenez, Getxok ez du inoiz banderarik izan, eta bandera zehatza proposatzen zen. Arrue jaunak ikerketaren ondorioak irakurri ditu, eta uste du, egindakoa ikusita, Mozioko lehenengo puntua ez dela zentzuzkoa, eginda dagoelako; halaber, bere iritziz, bidezkoa taldeek ikerketa baloratzea da, eta, egokia izanez gero, tramitazioari jarraipena ematea.

Camara jaunak dio berak ez duela ikerketa horren berririk, eta penagarria dela hori orain arte tiradera batean ezkutaturik egotea. Banderen jatorria gogoratu du; horri dagokionez, banderarik ez duten udalerriek, aspaldion, ikur berriak hartu dituzte, eta berak uste du komenigarria izango litzatekeela Mozioak adierazitako bidetik jarraitzea.

Urkiza jaunaren ustez, Osoko Bilkura proiekturen batekin funtsean ados dagoenean, hori tramitatu baino lehen, komenigarria izango litzateke hiritarren iritzia jakitea.

Iturbe jaunak dioenez, ikerketan onarturikoaren arabera, Getxok ez du inoiz banderarik izan, eta udalerririk gehienek banderak asmatu dituzte, baina biztanleak gero ez dira horiekin identifikatu. Bere iritzian, bestalde, benetan historia duena eta identifikazioa sortu ahal duena Getxoko armarria izan daiteke, inskripzioa duen armarri urrienetarikoa ere badelako.

Arrue jaunaren ustez, garrantzitsua da Osoko Bilkuraren gehiengoaren iritzia, bandera bat aukeratzeari dagokionez; bide batez, gogora ekarri du Osoko Bilkurak harturiko erabakia,

nunca una bandera, y se proponía una bandera en concreto. La Sra. Arrue da lectura a las conclusiones de dicho estudio, y estima que a la vista de lo realizado, el primer punto de la moción no tendría sentido ya que está ya ejecutado, y que lo que procede es entrar los grupos a valorar el estudio, y si parece correcto seguir con la tramitación.

El Sr. Cámara manifiesta que desconocía la existencia de dicho estudio y lamenta que haya estado escondido en algún cajón. Recuerda de donde provienen las banderas, y cómo aquellos municipios que no disponían de banderas últimamente se han dotado de nuevas enseñas, y cree que sería conveniente en avanzar en el sentido propuesto por la Moción.

El Sr. Urkiza manifiesta que en su opinión cuando el Pleno esté básicamente de acuerdo en un proyecto, previamente a tramitarlo, debiera de testarse la opinión de la ciudadanía.

El Sr. Iturbe indica que tal como reconoce el estudio, Getxo no ha tenido nunca bandera, y la mayoría de los municipios han ido inventando banderas que luego no generan una identificación por parte de los ciudadanos. Estima que lo que si tiene historia y podría generar identificación sería el escudo de Getxo que es de los pocos escudos que tienen a su vez incorporada una inscripción.

La Sra. Arrue estima que es importante la opinión de la mayoría del Pleno, que es la de dotarse de una bandera, y aprovecha para recordar el acuerdo plenario de que se coloquen los

Udaletxean mastak jartzeko eta bandera horietan ofizialak ipintzeko, alkatea erabaki hori urratzen ari baita.

Urkiza jaunak Koldo Iturberi erantzun dio, esanez ikurrina ere asmatu-riko bandera dela, baina biztanle guztiek onartzen dutela.

Eztabaida amaitu ondoren, Mozioa bozkatu egin da, eta bozketaren emaitza hauxe izan da: aldeko 15 boto (PP, PSE-EE eta EB/B) eta aurkako 10 boto (EAJ).

Horrenbestez, hauxe erabaki zen gehiengoz:

“Udal-erri guztiak, giza talde guztien kasuan bezala, historia osoan euren burua berresten eta inguruko gainerako taldeei euren burua ezagutarazten saiatu dira.

Norbere burua berresteko eta gainerako- en artean ezagutarazteko modurik erabilien-etarikoak ikurrak dira, horiek baliozkoak baitira taldeak identifikatzeko eta inguruko beste talde batzuetatik bereizteko; gainera, taldeko kideak biltzeko tresna ere badira.

Segururik, herri bat identifikatzeko gaitasunik handiena duen ikurra bandera da.

Beraz, Udal Talde Sozialistak honako erabaki hau onartzeko proposamena egin dio Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2008.02.29an egindako bilkuran, Udala ordezkatzeko duen bandera bat aukeratzeko erabakia hartu du; horrela, gobernu taldeak, bi hilabeteko epean, horren diseinua egiteko agindua emango dio bexilologo bati; bestela,

mástiles y ondeen las banderas oficiales en el Ayuntamiento, que está siendo incumplido por el Alcalde.

El Sr. Urkiza replica manifestando a Koldo Iturbe que también la Ikurriña es una bandera inventada, pero que está asumida por la población.

Finalizado el debate, se somete la Moción de referencia a votación, con el siguiente resultado: 15 votos a favor del PP, PSE-EE y EB/B y 10 en contra del PNV.

En consecuencia, por mayoría se acordó:

“Todos los municipios, como todo grupo humano, han tratado a lo largo de su historia de afirmarse y darse a conocer ante el resto de grupos con los que convive.

Uno de los medios utilizados para afirmarse y darse a conocer, es la utilización de unas simbologías que los identifiquen y los distinguan de los otros con los que conviven, siendo igualmente símbolo de unión entre sus miembros.

Tal vez sea la bandera, el símbolo con mayor capacidad identificadora de un pueblo.

Por lo que el Grupo Municipal Socialista propone al Ayuntamiento Pleno que adopte el siguiente, acuerdo

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, en su sesión de fecha 29.02.2008, acuerda dotarse de una bandera que represente al Municipio, mandatando al equipo de Gobierno a que en un plazo de dos meses encargue su diseño a un técnico vexilólogo, o mediante un

idea-lehiaketa antolatuko du, eta, bertan, bandera egitean historia eta heraldika hartuko dira kontuan.

2. Ondoren, Osoko Bilkurak banderaren diseinua onetsi ondoren, bidezko tramite guztiak hasiko dira, Bizkaiko Batzar Nagusiak hori Getxoko udalerriko banderatzat erabili ahal izateko.

**37.- UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTURIKO MOZIOA, LUIS LÓPEZ OSÉS KALEAN ARGIZTAPENA JARTZEKO ETA HIRIGINTZAREN HOBEKUNTZA EGITEKO.**

Luis Almansa jaunak mozio hori irakurri du.

Joseba Arregik hitza hartu eta aditzera eman du gobernu taldea bat datorrela diagnostikoarekin, eta ados dagoela proposamenarekin; hala eta guztiz ere, hiru hilabeteko epea ez da onargarria, planteatzen dena egin ahal izateko; halaber, Mozioan bidegorri baten zuzkidura sartzeko eskabidea egin du, espaloiri ondo egokitzen baitzaio.

Almansa jaunaren iritzian, beharrezkoa da konpromisoko epe bat hartzea; dena den, badaki betearazpen-proiektua eta halakoak esleitzeko denbora nahikoa behar dela, baina berehala jardun behar da argiztapenaren arloan, behin-behineko jarduketak egin arren.

Arregi jaunak dioenez, gaia Zerbitzu Teknikoei planteatu zaie, eta ez dago

concurso de ideas que tenga en cuenta la historia y la heráldica en la construcción de la bandera.

2. Que a continuación, y un vez aprobado su diseño por este Pleno, se inicien los trámites pertinentes para que las Juntas Generales de Bizkaia aprueben su uso como bandera del municipio de Getxo.

**37º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A QUE SE DOTE DE ILUMINACIÓN A LA CALLE LUIS LÓPEZ OSÉS Y SE REALICE SU MEJORA URBANÍSTICA.**

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Interviene Joseba Arregi para indicar que el equipo de Gobierno coincide en el diagnóstico y está de acuerdo con la propuesta, pero que el plazo de tres meses le parece inasumible para poder realizar lo que se plantea, y así mismo solicita que se incorpore en la Moción la dotación de un bidegorri por encajar en la acera.

El Sr. Almansa estima que es necesario adoptar un plazo de compromiso, aunque es consciente de las necesidades temporales para la adjudicación del proyecto de ejecución, etc., pero que es necesario actuar de manera urgente sobre el alumbrado, aunque sea de manera provisional.

El Sr. Arregi indica que se ha planteado la cuestión a los Servicios Técnicos y

aukerarik proiektuarekin bateragarria den gasturik egiteko; gainera, "urte honen barruko" epea onartuko luke, eta Almansa jaunak ere onartu egin du proposamena; horrenbestez, Mozioaren xedapen-zatia, bozkatu ahal izateko, honelaxe geldituko litzateke: "Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an egindako bilkuran, gobernu taldeari eskabidea egitea erabaki du, aurten proiektu tekniko egiteko eta betearazteko, hain zuzen ere, Luís López Osés kaleko hirigintza hobetzeko, Gobela polikiroldegitik Gobelaurre kalearekin bat egiteko lekuraino doan tartean; hain zuzen ere, tarte horretan argiztapena jarri, espaloiak osatu eta hobetu, eta, azkenik, HHSen nahiz birziklapenaren edukiontzia leku egokian jarriko dira."

Horrenbestez, Mozioa bozkatu ondoren (onarturiko aldaketarekin), Korporazioko kide guztiek aho batez onetsi dute.

Hortaz, erabaki hauxe hartu zen aho batez:

"Luís López Osés kaleko 2-26 zenbakietako jabe-elkartea (elkarte horretako 13 atariak biltzen dituzten etxebizitzetako 392 baterako jabe) kexu dira, kaleko zati horretan argiztapenik ez dagoelako eta galtzadako lurzorua egoera txarrean dagoelako.

13 atarik eta merkataritzako zenbait lokalek kale horretatik dute sarrera. Era beran, Pedro Arístegui, María Goiri eta Santa Eugenia ikastetxe publikoko patioaren sarbidea ere bertan dago, baita udaleko babes-apartamentuen sarbidea ere.

que no caben posibilidades de realizar un gasto que sea compatible con el proyecto, y que asumiría el plazo "dentro del presente año", propuesta asumida por el Sr. Almansa, por lo cual la parte dispositiva de la Moción para votarlo quedaría de la siguiente manera: "El Pleno del Ayuntamiento de Getxo reunido en su sesión de fecha 29 de febrero de 2008, acuerda instar al equipo de Gobierno a que dentro del presente año realice un proyecto técnico y su posterior ejecución, de mejora urbanística de la calle Luís López Osés, en el tramo que va desde el polideportivo Gobela hasta la confluencia con la calle Gobelaurre, para dotar a este tramo de alumbrado, completar y mejorar las aceras y, de ubicar correctamente los contenedores de RSU y de reciclajes."

Sometida la Moción de referencia a votación, con la modificación admitida, es aprobada por la totalidad de miembros de la Corporación.

En consecuencia, por unanimidad se acordó:

"La comunidad de Propietarios de la calle Luís López Osés, números 2 al 26, con 392 copropietarios de la viviendas que comprenden los 13 portales de esta Comunicad, se quejan de la falta de alumbrado de parte de la calle y del mal estado que se encuentra el firme de la calzada.

Esta calle da entrada a 13 portales así como a locales comerciales. También da acceso al patio del colegio público Pedro Arístegui, María Goiri y Santa Eugenia, y a los apartamentos tutelados municipales.

Udalak, Gobela polikiroldegiko obrak egitean, zona berrantolatu eta espaloi zabala egin zuen bertan, polikiroldegirako sarbidean; gainera, argiztapen berria instalatu zuen, baina ahaztu egin zuen kalearen gainerako zatian (Gobelaurre kalearekin bat egin arte) beste horrenbeste egitea.

Polikiroldegiko zonako argiztapen berria egokia da; baina, zona horretatik Gobelaurre kalearekiko bilguneraino, oso akastuna da, argiztapenik ere ez baitago; horrela, etxebizitzan atarrietan eta merkataritzako lokalean sartzeko kale-zatia ez dago behar bezala argizaturik, ezta ikastetxe publikorako eta Udalaren babes-apartamentuetarako sarbidea ere.

Halaber, zoruaren asfaltatua oso narriatuta dago eta arrakala handiak ditu, ibilgailuen zirkulazio handia duen kale batean.

Bestalde, kalearen oraingo egoera aintzat hartuta (eskuineko alderdian espaloirik gabe, kaleko berezko argiztapen barik, ezkerreko espaloiaren zirkulazio zailarekin eta kalea bi galtzadatan banatzen duen erdiko gune batekin —zaborretarako edukiontziak dituen, auzotarrei zerbitzua galtzadatik bertatik emanez, horrek autoren batek zapaltzeko arriskua dakarrelarik—), beharrezkoa da udalak hirigintza-soluzioa ematea akats horiei guztiei, eta, horretarako, kale osoa aintzat hartzen duen berrurbanizazio-proiektua idatzi beharko du.

Beraz, sozialistek, auzo-elkarteen errebindikazioak jasota, Udaleko Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartzea proposatzen dugu:

El Ayuntamiento al realizar las obras del polideportivo Gobela, reordenó esa zona dotándola de una ancha acera en el acceso al polideportivo, y la dotó de nueva iluminación, pero se olvidó de dar continuidad al resto de la calle hasta la confluencia con la calle Gobelaurre.

La nueva iluminación en la zona del polideportivo es satisfactoria, pero desde esta zona hasta la confluencia con la calle Gobelaurre, es muy deficiente, por no decir inexistente, dejando insuficientemente alumbrado el resto de la calle que da acceso a los portales de viviendas y locales comerciales, al patio del colegio público y a los apartamentos tutelados municipales.

Asimismo, el asfaltado del firme está muy deteriorado, con amplias grietas y baches en una calle con mucha circulación de vehículos.

Por otro lado, tal como ésta actualmente la calle sin acera en la parte derecha, sin alumbrado propio de la calle, con una acera izquierda de difícil tránsito y con un gran parterre central que divide la calle en dos calzadas donde se ubican algunos contenedores de basura con servicio para los vecinos por la propia calzada con el consiguiente peligro de atropello, se hace necesario que el Ayuntamiento de solución urbanística a todas estas deficiencias con la redacción de un proyecto de reurbanización que recoja toda la calle.

Por ello, los socialistas recogiendo las reivindicaciones de las comunidades de vecinos proponemos al Ayuntamiento Pleno que adopte el siguiente, acuerdo:

“Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2008ko otsailaren 29an bilduta, gobernu taldeari eskabidea egitea erabaki du, aurten proiektu teknikoa egiteko eta, gero, betearazteko; horrela, Luís López Osés kalearen hirigintza hobetuko du, Gobela polikiroldegitik Gobelaurre kalearekin bat egin arteko zatian; zati horretan argiak jarri, espaloiak osatu nahiz hobetu eta, azkenik, ondo kokatuko dira HHSen eta birziklapenen edukiontzia.”

“El Pleno del Ayuntamiento de Getxo reunido en su sesión de fecha 29 de febrero de 2008, acuerda instar al equipo de Gobierno a que dentro del presente año realice un proyecto técnico y su posterior ejecución, de mejora urbanística de la calle Luís López Osés, en el tramo que va desde el polideportivo Gobela hasta la confluencia con la calle Gobelaurre, para dotar a este tramo de alumbrado, completar y mejorar las aceras y, de ubicar correctamente los contenedores de RSU y de reciclajes.”

**38.- UDAL TALDE SOZIALISTAK  
AURKEZTURIKO MOZIOA,  
ORMAZA PARKEKO  
LORATEGIETAN BABESEKO  
HESIAK JARTZEARI BURUZ.**

**38º.- MOCIÓN DEL GRUPO  
MUNICIPAL SOCIALISTA  
RELATIVA A LA IMPLANTACIÓN  
DE SETOS DE PROTECCIÓN EN  
LOS JARDINES DEL PARQUE  
ORMAZA.**

Luis Almansa jaunak Mozioa irakurri du.

Luis Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Arregi jaunak hitza hartu eta aditzera eman du gobernu taldeak gaia aztertu egingo duela; izan ere, Alderdi Sozialistak zenbait gunetan egiten duen planteamendu zehatza da; hain zuzen ere, Mozioak ez du ondo zehazten eskatutako nola betearazi behar den, eta, horrenbestez, Mozioa atzera botatzeko eskatu du; horri dagokionez, esan du gobernu taldea gaiari buruz mintzatzeko prest dagoela.

Interviene el Sr. Arregi para indicar que el equipo de Gobierno plantea estudiar el tema, ya que se trata de un planteamiento puntual que viene realizando el Partido Socialista en diferentes puntos concretos y que incluso esta Moción tampoco define de manera concreta como quiere que se ejecute lo solicitado, por lo que pide que se retire la Moción, manifestando la disponibilidad del equipo de Gobierno para hablar del tema.

Almansa jaunak erantzun dio, esanez mantendu egingo duela Mozioa, eta berori, izan ere, parke zehatzari buruzkoa dela, jardun beharra duten beste zona batzuk daudenik zalantzan

El Sr. Almansa replica manifestando que mantiene la moción y que se refiere a un parque concreto sin cuestionar que existan otras zonas con necesidades de actuación. Recalca que existe un peligro

jarri gabe. Berretsi egin du parkearen erabiltzaileak arrisku larrian dabiltzala, batez ere haurrak; berak planteatzen duena gauza erraza da, lorategien mantenamendu arrunteko lanaren barruan.

Mozioa bozkatu ondoren, honako emaitza hau atera da: aldeko 14 boto (PP eta PSE-EE) eta 11 abstentzio (EAJ eta EB/B).

Horrenbestez, honako erabaki hau hartu zen aho batez:

“Udal Talde Sozialistak Maidagan kalearen hasieran dagoen ‘Ormaza parkea’ erabiltzen duten auzotarren kezak jaso ditu; hain zuzen ere, auzotar horiek diotenez, ezpondak eta kota desberdinak dituzten lorategi-zona batzuk (besteak beste, Sarrikobaso kaleko espaloiairen ondokoa) arriskutsuak dira bertan jolasean ibiltzen diren haurrentzat, aintzat hartuta segurtasun-hesitzat diharduen elementurik ez dagoela, haurrak desnibel eta ezponda horietatik ez jausteko.

Arrisku horiek geuk ere egiaztatu ditugu; beraz, Udal Talde Sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkeztu dio Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 08.02.29an bilduta, babeseko sistema naturalak (landare-hesiak, apaindurako zuhaixkak, etab.) berehala eta premiaz ezartzeko erabakia hartu du, bertan jolasean dabiltzan haurrak handik behera erortzeko arriskua dakarten ezponda guztien eta desnibelen aurkako babesa sortzeko.

importante para los usuarios del parque y sobre todo para los más pequeños, y que lo que se plantea es algo fácil dentro de una labor de mantenimiento de jardines ordinaria.

Sometida la Moción a votación, obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor del PP y PSE-EE y 11 abstenciones del PNV y EB/B.

En consecuencia, por mayoría se acordó:

“El Grupo Municipal Socialista ha venido recibiendo quejas de vecinos que utilizan el “parque Ormaza” sito al inicio de la calle Maidagan, en el sentido de que algunas zonas de jardines con taludes y diferencias de cotas (como, entre otras, la del parque con la acera de la calle Sarrikobaso) suponen un peligro para los niños que juegan en él, dado que no existe ningún elemento de protección que suponga una barrera de seguridad para evitar que caigan por esos desniveles y taludes.

Dichos riesgos han sido comprobados por nosotros, por lo que, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de de acuerdo:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo, reunido en sesión de fecha 29.02.08, acuerda que de manera urgente se proceda a la implantación de sistemas naturales de protección (setos, arbustos ornamentales, etc.) que hagan de barrera natural de protección en todos aquellos taludes y diferencias de niveles que supongan peligro de caída para los niños que juegan en él.

2. Erabaki hori betetzeko, Udaleko Osoko Bilkurak premiazko jarduketa garatzeko eskabidea egin dio gobernu taldeari.

2. En cumplimiento de dicho acuerdo, el Ayuntamiento Pleno insta al equipo de Gobierno a que lo ejecute de manera urgente.

**39.- UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTURIKO MOZIOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI MAIDAGAN KALEA LAGATZEKO ESKABIDEA EGITEARI BURUZ; ORAIN FORU ERREPIDEA DA ETA LAGAPENA HITZARMENAREN BIDEZ EGINGO DA.**

**39º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A INSTAR A LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA A LA CESIÓN DE LA CALLE MAIDAGAN, ACTUAL CARRETERA FORAL, A REALIZAR MEDIANTE CONVENIO, Y OTROS EXTREMOS.**

Luis Almansa jaunak Mozioa irakurri du:

Luis Almansa da lectura a la siguiente Moción:

“Bizkaiko Foru Aldundiari eskabidea egingo zaio, bidezko negoziazioak egin ondoren Getxoko Udalarekin Hitzarmena lortzeko, eta, horren bidez, Maidagan kalea hobetzeko eta egokitzeko (orain foru-errepidea); hain zuzen ere, hirigintza-baldintza hobek sortuko ditu bertan, kale hori gero Udalarari lagatzeko. Proposamen edo eskabide hori ezinbestekoa da gaur egun.

“La propuesta de instar la Diputación Foral de Bizkaia a que, previas las negociaciones oportunas, elabore un Convenio con el Ayuntamiento de Getxo, dirigido a la mejorar y acomodar la calle Maidagan, actual carretera foral, a las mejores condiciones urbanísticas, para posteriormente cederla al Ayuntamiento, es ya una necesidad de nuestro tiempo.

Proposamena, bestalde, auzotarren errebindikazioen eraginezkoa izan da; hain zuzen ere, auzotarrak kexu dira Maidagan kaleak ezkerreko ibilbidean espaloirik ez duelako, zorua narriatuta duelako, espaloiazen zati batek irisgarritasunari buruzko legea betetzen ez duelako (bi metroko gutxieneko zabalera ezartzen duen legea) eta goiko igarobiderik edo ibilgailuen abiadura moteltzeko beste neurririk ez duelako, aintzat hartuta kale horretan bi zahar-etxe eta ikastetxe publiko bat daudela.

La iniciativa de esta propuesta obedece también a las reivindicaciones vecinales que se quejan de que la calle Maidagan carece de acera en zonas de su recorrido izquierdo, tiene el firme deteriorado, parte de la acera existente no cumple la ley de accesibilidad que fija una anchura mínima de dos metros, así como carece de pasos elevados u otras medidas que obliguen a los conductores a reducir las velocidades de sus vehículos, en una calle donde existen dos residencias de ancianos y un colegio público.



Maidagan kalearen titulartasuna Foru Aldundiarena denez, izatez foru-errepidea baita, Udalak ezin du berenez jardun, kale horren hirigintza hobetu ahal izateko; horrenbestez, lehen esan dugunaren arabera, anakronismo handia dago, izatez hiri-egituran guztiz integraturiko kalea baita.

Hortaz, Udal Talde Sozialistak, Euskadiko Sozialisten Taldearekin koordinazioan (Batzar Nagusietan antzeko ekimena proposatu duen taldea), honako erabaki-proposamen hau egin nahi dio Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 08.02.29an egindako bilkuran, Bizkaiko Foru Aldundiari bidezko tramiteak hasteko eskabidea egitea erabaki du, Maidagan kalea (oraingo BI-3722 foru-errepidea) Getxoko Udalarari lagatzeko.

2. Halaber, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskabidea egingo dio, Bizkaiko Foru Aldundiarekin bidezko negoziazioak egin ondoren, Getxoko Udalarekin Hitzarmena egiteko; hitzarmen horren bidez, hobetu eta egokitu egingo da aipaturiko tartea, hirigintzaren arloko baldintzarik onenetan, gero lagapena egin ahal izateko.

3. Bien bitartean, lagapen horren eta egokitzapen obren baldintzak zehaztuko dira; horri dagokionez, udaleko Osoko Bilkurak harturiko erabakiaren arabera, gobernu taldeak edo Foru Aldundiak sistemak instalatuko dituzte, gidari batzuek

